

Gazte-hotelak

Joxean Agirre

A rkitektura ikasketak bukatzen ari den ilobari pare bat aldiz esana nion proiekturako aurkitu niola gai polit bat: hutsik geratu diren komentuak nola egokitu gazteen-tzako gelak egiteko, lan merkatuan pixka bat egonkortu arte ez dutelako pisu bat alokatzeko eta gutxiago erosteko ahalmenik. Nahiko dute 20 metro koadroko bizi-toki bat, esaten nion, eta kontaktzen nion gaztetan nola Parisen seigarren solairue-tako *chambre*-etan bizi izan ginen eta gehienek leihotik zerua bakarrik ikusten zuten, guretik Auteuilgo zaldi lasterketak

ikusten baziren ere, luxu bat. Gaiaz orrialde batzuk idatzita ere banituela gogoratzen nion, baina ez zidan kasurik egiten. Orain egun batzuk “Urola Kostako Hitzza”-n irakurri nuen jaioterrian, Azpeitian, Udalarena den Esklabetako komentuan gazteentzako 45 apartamentu txiki egin behar dituztela gazteei bost urteko alokairuan emateko. Ez dira gela soilak, bakoitzak 40 metro koadro izango baititu (3,5 milioiko inbertsioa da orotara), baina funtsean ideia bera da. Ilobari saldu nahi nion nire proiektuan komentuaren zati bat gazteek har-

tzen dute eta beste zati bat zaharrentzako pisu babestuek. Nire fantasia edo utopia horretan espazio komunak dituzte. Nork daki, egunen batean Esklabetan gazte-hotelaren ondoan zaharrentzako pisu babestuak egingo balituzte, neure burua irudika dezaket bertan. 45 gazteren artean egongo da bakarren bat literatura gogoko duena eta asteen pare bat aldiz elkartuko ginateke garagardo bana edanez berriketan egiteko eta berak bere azken diskoak utziko lizkidake zaharren aldean zarata pixka bat jartzeko. •

Planto, mugiarazteko

E makumeek protagonismo berezia izango dute gaur Gasteizen, duela 42 urteko gertakarien bueltako ekitaldietan. Sindikatuek aurten ez dute pankarta sinatuko, emakumeak egongo dira arratsaldeko manifestazioaren buruan, baita ekitaldiaren gidaritzan ere. Aurtengo Emakumeon Nazioarteko Egunerako egin den greba feministaren deialdiak giroa zentzu onean kutsatu duen seinale izan daiteke. Ez da efemeridearekin lotutako berrikuntza bakarra. Duela 42 urte Zara-

magan Poliziak egindako sarraskiaren memoria mantentzeaz gain, orduko protestetako emakumeen memoria berreskuratzen baitihardu Zuriñe Rodriguezek Martxoak 3 elkartearekin batera. Etxekoen aholkuen aurka, langile batzarretan parte hartu zuten andreen memoria. Ikastorduei muzin egin eta mobilizazioetara joan ziren neska gazteena. Poliziak bortizki zauritutako gorputzak artatu zituzten erizainena. Guztien memoria delako garrantzitsua, guztiak izan zirelako duela 42 urte garrantzitsuak, eta guztiok garelako

gaur egun eta gerorako ere garrantzitsuak. Horregatik ere badatorkigu datorren ostegunean planto egiteko deia. Soldata prekarioak ditugunoi. Militantzian eta parte hartze politikoan erreferente izateko boteretu arren, lan erreproduktiboak motxilan izaten jarraitzen dugunoi. Familiako adinekoen zaintza, gizonezkoen soziedadeetako garbiketarekin eta baserriko lanekin kontziliatu behar dituztenei. Denoi dagokigu planto egitea, gure protagonismoak titularretara eramateko bezain berezia izateari utz diezaion. •

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran